



BIOLOGIAKO GRADUA

**3. MAILAKO IKASLEAREN GIDA
(31 TALDEA-EUSKARA)**

2023-2024 IKASTURTEA

Edukien taula

1.- Biologiako Graduari buruzko informazioa	3
Aurkezpena.....	3
Eskuratutako gaitasunak.....	3
Graduaren egitura	4
Hirugarren mailako irakasgaiak Graduaren testuinguruan	4
Graduko hautazko irakasgaiak	5
Hautazko irakasgaien eskaintza	5
Egin beharreko jarduera motak	6
Gradu Amaierako Lana (GRAL).....	6
Tutoretza akademikoak.....	7
Tutoretza Plana (TP)	7
Mugikortasuna	7
Kanpoko praktika akademikoak.....	7
Segurtasuna	8
Irakaslanean ezarri beharreko segurtasun neurriak	8
Norbera babesteko ekipamenduen (NBE) erabilera	8
Koordinazioa	8
Bestelako informazio interesgarria.....	8
2.- Taldearentzako informazio espezifikoa	9
Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan.....	9
Taldeari dagozkion jardueren egutegia.....	9
Irakasleak.....	9
3.- Hirugarren mailako irakasgaiei buruzko informazioa	9

Gida hau Biologiako Graduko Ikasketa Batzordeak (BIOLGIB) egin du

1. Biologiako Graduari buruzko informazioa

Aurkezpena

Darabilen metodologiagatik eta sortzen dituen ezagutzengatik, Biologia zientzia esperimentalen funtsezko zatia da. Azkar ari da aurrera egiten eta oso eragin handia izaten ari da gizartearen garapenean. Biologiako Graduak mundu bividuna aztertzen du, hainbat mailatan, molekulatik hasi eta biosferaraino, eta hainbat ikuspegitatik (egiturazkoak, funtzionalak eta bilakaerazkoak), eta integrazio maila handia dakin berekin. Graduaren konfigurazioari esker, izaki bividunen aniztasunaz eta konplexutasun estruktural eta funtzionalaz jabetuko diren profesionalak prestatuko dira. Izaki horien antolaketa maila guztiak (zelulak, banakoak, populazioak, komunitateak eta ekosistemak) aztertuko dituzte, lortutako informazioa gai aplikatuera igarotzea ahalbidetuko duen ikuspegi integratzailletik. Biologoaren eremu profesionalen artean ondorengoak aipa daitezke: osasuna, ikerketa eta garapen zientifikoa, farmazia industria, nekazaritzako elikagaien industria, industria kimikoa eta nekazaritza eta abelazkuntzako industria, ingurumen kudeaketa eta hezkuntza (bigarren mailako irakaskuntza eta unibertsitateko irakaskuntza).

Tituluaren kredituak: 240 ECTS

UPV/EHUnen beraren arauadiaren arabera, ECTS kreditu bat 25 lanordu dira, ikasleak gai bati dagozkion ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak hartzeko egin behar dituenak. Ordu horietan sartzen dira eskolak hartzan (teorikoak edo praktikoak), ikasten, mintegiak, lanak, praktikak edo proiektuak prestatzen, eta azterketak eta ebaluazio probak prestatzen eta egiten emandako orduak.

Espezialitateak:

- Biodibertsitatea eta Eboluzioa
- Ingurumen Biología
- Zelulen Biología, Molekularra eta Genetika

Prestakuntza prozesuan erabiliko diren hizkuntzak: gaztelania/euskara/ingleesa (eskaintza gero eta zabalagoa da UPV/EHUnen Eleaniztasun Planaren esparruan)

Eskuratutako gaitasunak

Hauek dira gradu hau amaitzean eskuratuko dituzun gaitasun nagusiak:

T01. Bizitzaren kontzeptuari eta jatorriari, antolamendu motei eta antolamendu-mailei eta karaktereak transmititzeko mekanismoei buruzko jakintzak (bilakaerari datzezkion prozesuak interpretatzeko aukera emango dutenak) eskuratzea.

T02. Biodibertsitatearen oinarri genetikoak, morfologikoak eta funtzionalak azaltzea eta animaliak, landareak, onddoak, mikroorganismoak eta birusak katalogatzeko, azterketa filogenetikoak egiteko eta baliabide naturalak behar bezala kudeatzeko tresnak garatzea.

T03. Izaki bividunen funtzionamenduaren oinarri molekularrak ezagutzea, biomolekulak aztertu eta identifikatzea, jarduera metabolikoak ebaluatzea eta diagnostiko genetiko eta molekularrak egitea.

T04. Hainbat zelula, ehun eta organismo mota lortu, erabili, kontserbatu eta behatzeko izaki bividunen egitura, antolamendu eta garapenari buruz beharrezkoak diren jakintza orokorrak edukitzea.

T05. Organismoen funtzioak eta jarduerak antolamendu biologikoaren maila guztieta eta ingurunearekiko egokitze-maila guztieta erregulatu eta integratzeko oinarriak identifikatzea, bioprosesuak produzitu eta hobetzeko azterketak diseinatu eta aplikatzeko.

T06. Ingurune fisikoari buruzko oinarri sendoa erakustea, ekosistemen egitura eta funtzionamendua interpretatzzen lagunduko duena eta populazioak eta ekosistemak ebaluatu, planifikatu, kudeatu, kontserbatu eta leheneratzea ahalbidetuko duena.

T07. Arlo instrumentalei buruzko oinarritzko jakintzak behar bezala erabiltzea informazioa lortzeko, experimentuak diseinatzeko eta Biologiako emaitzak interpretatzeko.

T08. Biologoaren lanbidearen ingurune zientifiko eta soziala kontuan hartuta, haren lanbide-eskumenen eremuan zerbitzuak egin eta proiektuak zuzendu, idatzi eta egikaritzea, eta komunitate zientifikoari eta gizarteari jakinaraztea.

T09. Erabakiak hartzea eta informazioa landu eta helarazteko gaituko duen azterketa, sintesi, antolaketa eta plangintzarako ahalmena garatzea.

T10. Talde-lana bultzatuko duten pertsona arteko harremanetan trebetasunak garatzea eta arrazoiketa kritikoan eta gizartearen balioekiko konpromiso etikoan aurrera egitea.

T11. Ikaskuntza autonomo jarraiturako tresnak eskuratzea ahalbidetuko duen eta ekimena, berrikuntza, kalitatearekiko motibazioa eta ingurumen-gaien inguruko sentsibilitatea sustatuko dituen jarrera positiboa agertzea.

T12. Produktu kimikoak eta organismo biologikoak manipulatzeak dakartzan arriskuak behar bezala balioestea laborategietan jarduteko procedura seguruak aplikatzeko, betiere lan-segurtasunari, hondakin arriskutsuen kudeaketari eta ingurumen-inpaktuari buruzko legeriari jarraiki.

Zeharkako gaitasunak

Testuinguru zehatz bateko beharren aurrean eraginkortasunez jokatzeko, pertsona batek modu integratuan erabiltzeko gai izan behar duen trebetasun eta jarrera multzoa. Zeharkako gaitasunek, beraz, hezkuntza programa baten ikaskuntza emaitzak deskribatzen dituzten gaitasun eta jarrera multzoa osatzen dute. Biologiako graduoko zeharkako gaitasunak hurrengoak dira:

- ZG1 Konpromiso etikoa
- ZG2 Ikaskuntza gaitasuna
- ZG3 Talde-lana
- ZG4 Sormen eta ekintzaile gaitasuna
- ZG5 Komunikazio gaitasuna
- ZG6 Autonomia eta erantzukizuna

Zeharkako gaitasunen eta beraien eginkizun-mailen inguruko informazio gehiago Zientzia eta Teknologia Fakultateko web-orrian lor daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/ct-b>

Graduaren egitura

MAIL	LAUHILEKOA	IRAKASGAIA	ECT	MOTA ¹
1. ^a	1. ^a	ZELULEN BIOLOGIA	6	N
		BIOKIMIKA I	6	N, BAO
		MATEMATIKA	6	N, ZO
		KIMIKA	6	N, ZO
	2. ^a	BIOESTATISTIKA	6	N, ZO
		BIOKIMIKA II	6	N, BAO
		BIOLOGIAKO KONTZEPTUAK ETA METODOA	6	N, ZO
	URTEKOA	FISIKA	9	N, ZO
		GEOLOGIA*	9	N, ZO
2. ^a	1. ^a	GENETIKA	6	N
		MIKROBIOLOGIA	6	N
		TERMODINAMINKA ETA ZINETIKA KIMIKOA	6	N, ZO
	2. ^a	EHUNEN BIOLOGIA	6	N
		MIKROORGANISMOEN DIBERTSITATEA	6	N
		GENETIKA MOLEKULARRA	6	N
	URTEKOA	BOTANIKA	12	N
		ZOOLOGIA*	12	N
3. ^a	1. ^a	LANDAREEN FISIOLOGIAREN OINARRIAK*	6	N
		ANIMALIEN FISIOLOGIAREN OINARRIAK*	6	N
		ANTROPOLOGIA FISIKOA*	6	N
		HAUTAZKO IRAKASGAI BAT	6	Hz
	2. ^a	ZUZENBIDEA ETA ETIKA BIOZIENTZIETAN	6	N
		LANDAREEN FISIOLOGIA AURRERATUA	6	N
		ANIMALIEN SISTEMEN FISIOLOGIA	6	N
		HAUTAZKO IRAKASGAI BAT	6	Hz
	URTEKOA	EKOLOGIA*	12	N
4. ^a	URTEKOA	GRADU AMAIERAKO LANA	12	N
		HAUTAZKO IRAKASGAIAK	48	Hz

N: Nahitaezkoa, Hz: Hautazkoa, ZO: Zientzietako oinarrizkoa, BAO: beste adar batzuetako oinarrizkoa.

*Ingelesez ere eskaintzen da.

Hirugarren mailako irakasgaiak Graduaren testuinguruan

Lehen esan bezala, Graduaren konfigurazioari esker Biologian gaitutako profesionalak prestatuko dira. Azken helburua pixkanaka erdiesten da: pausoaz pauso ikasleak gaitasun berriak hartzen ditu, edo beste batzuetako maila hobetzen du, modu autonomoan eta jarraituan ikasteko gai den eta gizartearekiko konpromiso etikoa hartuta duen profesionala izatera iritsi arte. Graduko hirugarren mailan, irakasgaien edukia prestatzerakoan

kontuan izan behar da garatuko diren Graduko gaitasunak (taulan jasotakoak) hirugarren mailako ikasleetara egokitutako eskakizun mailarekin eskaini behar direla.

MAIL	LAUHILE	IRAKASGAIA	Gaitasunak
3. ^a	1. ^a	LANDAREEN FISIOLOGIAREN OINARRIAK	T01, T02, T03, T04, T05, T06, T07, T08, T12
		ANIMALIEN FISIOLOGIAREN OINARRIAK	T05, T07, T08
		ANTROPOLOGIA FISIKOA	T01, T02, T04, T07, T08
		HAUTAZKO IRAKASGAI BAT*	T01-T12
	2. ^a	ZUZENBIDEA ETA ETIKA BIOZIENTZIETAN	
		LANDAREEN FISIOLOGIA AURRERATUA	T01, T02, T03, T04, T05, T06, T07, T08, T12
		ANIMALIEN SISTEMEN FISIOLOGIA	T02, T05, T06, T07, T08
		HAUTAZKO IRAKASGAI BAT*	T01-T12
	URTEKOA	EKOLOGIA	T02, T05, T06, T07, T08

*Hautazko irakasgaien gaitasunak ikusteko 4.mailako ikaslearen gida kontsulta ezazu

Oharra: Antropologia Fisikoa, Landareen Fisiologiaren Oinarriak , Animalien Fisiologiaren Oinarriak eta Ekologia ingeleset ere eskaintzen dira

Graduko hautazko irakasgaiak

Gradu titulua espezialitate horietako batean lortu nahi duten ikasleek horietako bakoitzean dauden 43,5 ECTS kredituetatik gutxienez 30 ECTS egin behar dituzte. Espezialitate bat egin nahi izanez gero, komenigarria da hautazko irakasgaiak hari loturik aukeratzea.

Ohar garrantzitsua: 3. kurtsoko nahitaezko irakasgaien eta hautatu behar diren 2 hautazko irakasgaien artean gainezarpenak ekiditeko, egutegiaren diseinua hurrengoa izan da: **8:40-9:30 eta 13:00-13:50 ordu tarteak aske geratzen dira hautazko irakasgaiak** bertan sartzeko. Bi ordu tarte hauetan eskaintzen diren irakasgaiak Biologia Graduko hiru ibilbideetakoak dira. Gainontzeko hautazkoen ordutegiek gainezarpenak dauzkate 3. kurtsoko nahitaezko irakasgaiekin, beraz, hauek 4. kurtsoa hautatu beharko dira.

Matrikula egin baino lehenago, kontsultatu irakasgaien ordutegiak Fakultateko web gunean: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/egutegia-ordutegiak>

Halaber, aukeratutako hautazko irakasgaien irakaskuntza-gidak kontsultatzea gomendatzen da, hauek 4. mailako ikaslearen gidan eta ondoko web gunean → Ikerketaren Gida 2021/2022 - 4.kurtsoa eskura dituzularik.

Hautazko irakasgaien eskaintza

1.- Taula. Biodibertsitatea eta Eboluzioa, Ingurumen Biologia, Zelulen Biologia, Molekularra eta Genetikoa espezialitateetako hautazko irakasgaia

Lauh.	Ingurumen Biologia	ECTS	iodibertsitatea eta Eboluzioa	ECTS	Zelulen Biologia, Molekularra eta Genetikoa	ECTS
1.	Baso Ekologia	4,5	Onddoen eta Algen Dibertsitatea	6,0	Zelulen Biologia Molekularra	6,0
1.	Landareen Ekofisiologia	6,0	Landare Baskularren Dibertsitatea	4,5	Mikroorganismoen Fisiologia	4,5
1.	Itsas Ekologia	6,0	Ornodunak	6,0		
1.			Entomologia	6,0		
1.			Eboluzio Molekularra			4,5
1.	Idatzizko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz					6,0

Lauh.	Ingurumen Biologia	ECTS	iodibertsitatea eta Eboluzioa	ECTS	Zelulen Biologia, Molekularra eta Genetikoa	ECTS
2.	Animalien Ingurumen Fisiologia	6,0	Giza Eboluzioa	6,0	Ingeniaritza Genetikoa eta Analisi Genetiko Molekularra	6,0
2.	Ingurumen Mikrobiologia	4,5			Mikrobiologia Aplikatua	6,0
2.	Limnologia	6,0			Antropogenetika	6,0
2.		Geobotanika		6,0		
2.		Zoogeografia		4,5		
2.		Ahozko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz				6,0

Oharrak: Zelulen Biologia Molekularra, Ornodunak eta Giza Eboluzioa ingelessez ere eskaintzen dira., Landare Baskularren Dibertsitatea, Landareen Ekofisiologia, Idatzizko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz eta Ahozko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz euskaraz bakarrik eskaintzen dira. Geobotanika eta Onddoen eta Algen Dibertsitatea gaztelaniaz bakarrik eskaintzen dira

Egin beharreko jarduera motak

Biologiako Graduan, **eskola magistralak (M)**, **mintegiak (S)**, **ikasgelako praktikak (GA)**, **laborategikoak (GL)**, **landa praktikak (GCA)** eta **ordenagailuko praktikak (GO)** ikasteko funtsezko irakaskuntza modalitateak dira. Horiek guztiak lehenengo mailatik erabiltzen dira, nahiz eta irakasgai bakoitzean pisu erlatibo ezberdina hartzen duten Graduak aurrera egin ahala. Irakaskuntza modalitate horien guztien erabilera graduatuaren profesionalizazioa eta bere jardute esparruari dagozkion trebetasun tekniko, metodologiko eta intelektualen garapena bermatzen du.

Gradu Amaierako Lana (GRAL)

Gradu Amaierako Lana (GRAL) ikasle bakoitzak zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean banaka egin behar duen proiektu, memoria edo azterlana da. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, Graduko ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak.

GRALean ikasleek beren ikasketetan zehar eskuratutako ezagutzak aplikatzeko aukera izango dute lan edo proiektu zientifiko/tekniko batean, eta horrekin batera, titulazioko lan-arlo desberdinei lotutako memoria bat idatziko dute. Beraz, GRALean titulazioari lotutako gaitasun orokorrak aplikatuko dira, eta datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatuko dira. Datu horiek, normalean, ikasketei lotutakoak izango dira; era horretan izaera zientifiko edota teknologikoko gai garrantzitsuei buruzko gogoetak egin, eta pentsamendu kritiko, logiko eta sortzailea garatzen laguntzen duten iritziak eman ahal izango dira.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari Buruzko Arautegian ikasleek GRALa egiten hasteko ezagutu behar dituzten fase eta bete beharreko baldintzen inguruko xehetasunak azaltzen dira. Hurrengoak dira 2023/24 ikasturteko data garrantzitsuak:

Aurreinskripzioa (2023ko uztailak 12-14, biak barne): online betetzeko formularioaren bidezko aurreinskripzioa: https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/tfg_aurreinskripzioa.

Insripzioa edo izen-emeatea: GRALean izena emateko, 72 kreditu eduki daitezke gehienez egin gabe (4. mailako 60 kredituak eta aurreko ikasturteetatik gehienez gera daitezkeen 12). Bi aukera daude:

- **2023ko irailak 1-8** (biak barne): irakasleek ikasleekin **adostutako lanen** izenak ematen dituzte eta, aldi berean, adostu gabeko lanen gaiak eskaintzen dituzte, gero ikasleek hautatu ditzaten.
- **2023ko irailak 20-22** (biak barne): **adostutako lanik ez** duten ikasleek GAURen bidez egiten dute gaien aukeraketa. Zerrendatik gehienez bost gai hautatu daitezke.

Esleipena (2023ko irailak 25-29, (biak barne): GRALEN gaien behin betiko esleipena egindakoan ikasleei posta elektroniko bidez mezua helarazten zaie.

Matrikulazioa, memoria entregatzea eta defentsa: matrikulak bi defentsa deialditarako eskubidea ematen du ikasturteko. Matrikulatzeko, ikasleak Graduko kreditu guztiak gaindituta izan behar ditu, GRALarenak izan ezik. 2023/24 ikasturtean, honako hauek izango dira matrikularako eta defentsarako datak:

Deialdia	Matrikula eta Memoria entregatzea	Defentsa
Otsaila	2024ko otsailaren 12-15	2024ko martxoaren 4-8
Ekaina	2024ko ekainaren 19-21	2024ko uztailaren 10-12
Abuztua	2024ko uztailaren 19-23	2024ko irailaren 4-6

GRALari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/trabajos-fin-grado>

Tutoretza akademikoak

Tutoretza akademikoa da irakaslearen bidez ikasleari eskaintzen zaion aholkularitza eta orientazio akademikorako prozesua. Aholkularitza hau ikasleak ikasten ari diren irakasgaietan laguntza eskaintzeko bideratuta dago. Lauhileko bakoitzaren hasieran irakasle bakoitzak bere tutoretza-ordutegia jakinaraziko du.

Tutoretza Plana (TP)

Tutoretza Planaren (TP) bidez ikasleei irakasle tute bat edukitzeko aukera eskaintzen zaie eta, horrela, unibertsitateko bizitzaren alderdi guzietan integratzea errazagoa izango dute. Horrez gain, irakasle tutea bakoitzak ibilbide akademiko osoan zehar orientatuko ditu bere ikasleak.

Irakasle tutoreen xedeak hurrengo hauek dira:

- prestakuntza integraleko prozesuan ikasleei laguntzea, ikuspegি akademiko, pertsonal eta profesionalean.
- ikasleei Fakultatearen jarduera akademikoan integratzen laguntzea.
- ikasleei unibertsitatean eskuragarri dituzten zerbitzu eta jardueren berri ematea.
- ikasketa aldean ager daitezkeen zaitasunak identifikatzea eta ikasteko gaitasun eta estrategien garapena erraztea.
- erabakiak hartzen laguntzea, bereziki curriculum ibilbidea aukeratu behar duenean.
- ikasleen garapen akademiko eta profesionalerako interesgarria izan daitekeen informazioa ematea.

Lehenengo mailaren hasieran, irakasle tutea bana esleituko zaie ikasleei. Esleipen hori indarrean egongo da Biologian graduazioa lortu arte. Hala ere, arrazoi sendoak argudiatuz, bai irakasle tutoreek bai tutoretzapeko ikasleek berresleipen bat eska dezakete Biologiako Gradurako Tutoretza Planaren (BOLTP) koordinatzailearen bidez.

Behar izanez gero, tutoretza prozesua banakakoa izan daiteke, baina oro har taldeka egingo da, irakasle tutea bakoitza bere ikasleen taldearekin elkartuz.

Ikasturte hasierako lehenengo asteetan, irakasle tutea bakoitza egokitutako ikasleekin harremanetan jarriko da, tutoretza prozedura eta TPn programaturiko jardueren egutegia zehazteko; horretarako, unibertsitateko posta elektronikoa erabiliko da.

Zein izan behar da ikasleen konpromisoa?

- TPn programatutako bileretara joatea.
- Ikasturtea amaitzean TP ebaluatzea.

Mugikortasuna

Fakultateak parte hartzen duen mugikortasun programen bidez, ikasleek aukera izango dute lauhileko edo ikasturte oso bat beste unibertsitate batean ikasteko. Bete beharreko baldintzak eta kontuan izan beharreko gainerako informazioa hurrengo estekan ikus daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/programas-intercambio-alumnado>

Kanpoko praktika akademikoak

Biologiako graduak curriculometik kanpoko praktika akademikoak ditu borondatezkoak, beraz. Dena den, kanpoko enpresetan praktikak egiten dituzten ikasleek aukera gehiago dituzte lanean hasteko eta, gainera, ezagutza eta gaitasun praktikoak bereganatzentzituzte, esperientzia profesionala.

Enpresa praktikei eta prestakuntza osagarriari buruzko informazioa Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetza dago, eta fakultateko idazkaritzan kokatuta dagoen Ikerketa Arreba Zerbitzuaren bitartez kudeatzen da:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/insercion-laboral>

Segurtasuna

Irakaslanean ezarri beharreko segurtasun neurriak

- Oro har, ikasle orok bere inguruan dauden segurtasun elementuetara oihitu behar du (su itzalgailuak, mahukak, segurtasun dutxak eta begiak garbitzeoak non dauden jakin behar du), baita larrialdietako irteera nagusien berri izan ere. Irteera horiek errespetatu egin behar dira eta horietan oztopo izango den elementurik egotea saihestu behar da.
- Laborategiko praktikak, tailerrak eta landa lanak egin bitartean, horietaz arduratzen diren irakasleek Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Printzipioak aplikatuko dituzte, baita praktiketan jardunbide egokien kodeak betetzen direla zaindu ere.
- Laborategirako sarbidea mugatua izango da eta irakasle arduradunek kontrolatuko dute.

Norbera babesteko ekipamenduen (NBE) erabilera

- Laborategiko praktiketan ezinbestekoa da bata erabiltzea. Ikaslea arduratuko da bata erosteaz.
- Irakasleek hala eskatuz gero, segurtasun betaurrekoak erabili beharko dira. Ikasleak arduratuko dira norbera babesteko ekipo hau erosteaz.
- Beharrezkoia izanez gero, erabili eta botatzeko eskularruak banatuko dira produktu arriskutsuekin lan egiterakoan eskuak babesteko.

Koordinazioa

Gradu Ikasketen Batzordeak (GIB) Graduko koordinazioaz arduratzen dira, hau da, Graduaren curriculumaren garapenaz, jarraipenaz, berrikuspenaz eta hobekuntzaz arduratzen dira. Hurrengoak dira Biologiako Graduko koordinatzaileak:

Mota	Koordinatzailea	Kontaktua
Gradua	Iñigo Azua Pérez Immunologia, Mikrobiología eta Parasitología Saila	inigo.azua@ehu.eus 94 601 5408 CD5.P0.16
1. maila TP BATP	Pamela Ruiz Rodríguez Zoología eta Animalia Zelulen Biología Saila	pamela.ruiz@ehu.eus 94 601 5513 F2.S2.8
2. maila	Idoia Martín Guerrero Genetika, Antropología Física eta Animalien Fisiología Saila	idoia.marting@ehu.eus 94 601 2605 F1.P0.1
3. maila	Usue Pérez López Landare-Biología eta Ekología Saila	usue.perez@ehu.eus 94 601 3374 F2.P0.4
4. maila	Mikel Iriondo Orensanz Genetika, Antropología Física eta Animalien Fisiología Saila	m.iriondo@ehu.eus 94 601 5298 F1.S1.10
Praktikak	Maite Orruño Beltrán Immunología, Mikrobiología eta Parasitología Saila	maite.orruno@ehu.eus 94 601 2688 CD5.P0.5
Gradu Amaierako Lana	Aitor Laza Martínez Landare-Biología eta Ekología Saila	aitor.laza@ehu.eus 94 601 8415 F2.P0.9

Biologiako Graduko GIBei buruzko informazio gaurkotua hurrengo estekan kontsultatu daiteke:
<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/comisiones-grado#GraduIkasketenBatzor1>

Gainera, Graduko irakasgai bakoitzerako koordinatzaile bat izendatuko da, zeina irakasgai hura ematen duen irakasle-taldea koordinatzeaz arduratuko baita. Biologiako Graduko irakasgaietako koordinatzaileak hurrengo estekan kontsultatu daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/coordinacion-de-asignaturas-bio>

Bestelako informazio interesgarria

Graduko zenbait irakasgaitan, irakasleek ikasgela birtuala erabiltzen dute irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Ikasgela horiek eGelan daude (<https://egela.ehu.eus>). eGelan sartzeko LDAP erabiltzaile-izena

behar da, ikasle bakoitzari esleitzen zaiona ikasle berriko matrikula egitean. LDAP erabiltzailea ere GAURen sartzeko erabiltzen da, zeina administrazio tramiteak eta ikasleen bizitza akademikoari lotutako datuak kontsultatzeko erabiltzen den erreminta informatikoa baita.

Biologiako Graduan matrikulatutako ikasle bakoitzak posta elektroniko korporatibo propioa dauka; kasu honetan ere, ikasle berriko matrikula egitean helbidea eta pasahitza esleitzen zaio ikasle bakoitzari. Helbide honetara iristen dira irakasleek, eGelak, dekanotza taldeak eta unibertsitateko bestelako estamentuek bidalitako mezuak. Helbide honetara iristen diren mezuak posta elektroniko pertsonalera birbideratu daitezke. Informazio gehiago hurrengo estekan: https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/bbc_alumnado. Partekatutako fitxategi ostatu-zerbitzua ere dago (<https://www.ehu.eus/eu/group/ikt-tic/bildu>).

Posta korporatiboaren erabilerari edo UPV/EHUko zerbitzu informatikoei lotutako edozein zalantza edo arazo izanez gero, gomendagarria da EAZrekin (Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua) kontaktatzea <https://lagun.ehu.eus> web orriaren bidez, LDAP erabiltzailea erabiliz. EAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/ikt-tic/eaz-cau> estekan.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikaslearentzako Arreta Zerbitzuak (ZTFIAZ) aholku ematen die ikasleei, eta enpresetako praktiketan zein akademi-elkartruke programetan parte hartzeko beharrezko izapideez ere arduratzen da. Fakultateko Idazkaritzan kokatuta dago. ZTFIAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/atencion-estudiantes> estekan

Biologiako Graduari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/grado-biologia>.

Fakultateko web orria:

<https://www.ehu.eus/zientzia-teknologia-fakultatea>.

2. Taldearentzako informazio espezifikoa

Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan

Irakasleek, eskolen lehen astean zehar, ikasleen banaketa irakaskuntzatalde desberdinetara emango dute.

Taldeari dagozkion jardueren egutegia

Zentroko eskola-egutegia webgune honetan konsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/calendario>.

Ordutegi ofizialak, jarduera bakoitza emango den ikasgelen inguruko informazioarekin batera, eta azterketen egutegi ofiziala fakultateko web orrian argitaratu eta eguneratuko dira:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/egutegia-ordutegiak> Horrez gain, aurreko estekan ere Graduko ikasgaietarako izendatutako 5. eta 6. deialdiko tribunalak konsultatu daitezke.

Irakasleak

Gradu honetako ikasgiaiak ematen dituzten irakasleen inguruko informazioa (harremanetarako datuak, tutoretza-ordua) graduko webgune instituzionalean konsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/biologiako-gradua/irakaslek>.

Lotura horretan, irakasle baten informazioa ikusi ahal izateko, nahikoa da irakaslearen izenaren gainean klik egitea.

3. - Hirugarren mailako irakasgaiei buruzko informazioa

Irakasgaiak ordena alfabetikoaren arabera ordenatuta daude.

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Plana GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Zikl. Zehaztugabea
Ikastaroa 3. maila

IRAKASGAIA

26716 - Animalien Fisiologiaren Oinarriak

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Animalien Fisiologia izeneko irakasgaian, animalia talde desberdinaren funtzionamenduaren oinarri biologikoak aztertuko dira, eta baita inguruarekin eta beste animaliekin ezartzen dituzten harremanen oinarrian daudenak. Horretarako, ezinbestekoa da izaki bizidunen funtzionamendu armonikoa ahalbidetzen duten ehunen eta organoen funtzioen koordinazio- eta integracio-prozesuak ulertzea eta azterztea, eta hori da funtsean ikasgai honetan landuko dena. Ikasgai hau Biologiako Graduan hirugarren ikasturtearen lehen lauhilabetean irakasten den 6 ECTSko derrigorrezko irakasgaia da, eta Fisiologia eta Ekologia deritzon 03 modulu osatzen duten ikasgaietako bat da. Modulu horretan, Biologiaren oinarrizko printzipioak menperatzeko jorratu behar diren antolaketa-maila desberdinaren (organismoa, populazio eta komunitatea) azterketa lantzen duten ikasgaiak daude jasota.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgaiaren gaitasun espezifikoak:

- 1- Animalia unitate funtzional gisa azterztea, organismoaren integritatearen zerbitzura dauden prozesu-multzo bateratu modura.
- 2- Homeostasia kontzeptuaren bidez animalien funtzioen erregulazioaren oinarriak aurkeztea.
- 3- Animalien unitate funtzionalaren erantzule diren eraenketa- eta integracio-mekanismoak azterztea, osagai nagusiak identifikatz eta maila ezberdinaren (molekularra, zelularra, sistema) oinarri fisiko/kimikoak eta ekintza mekanismoak deskribatuz.
- 4- Barne medioak organoen arteko komunikazioan eta hauen funtzioen arteko integrazioan duen garrantzia identifikatzea, sistema baskularren osagai nagusiak eta zirkulazioa zuzentzen dituzten legeak deskribatuz.
- 5- Erregulazio homeostatikoaren zirkuitu nagusiak integrazio funtzionalaren eredu modura deskribatza.

Zeharkako gaitasunak:

- 1- Erabakiak hartzeko eta informazioa modu egokian lantzeko eta adierazteko beharrezkoak diren analisi-, sintesi-, antolatze- eta planifikazio-ahalmenak garatzea.
- 2- Ikasketa jarrai eta autonomorako beharrezkoak diren tresnak lortzeko beharrezkoak den jarrera positiboa mantentzea, iniziatiiba, kalitatearen aldeko motibazioa eta ingurumenarekiko sentsibilitatea sustatz.
- 3- Talde-lanean eta pertsonen arteko harremanetan trebetasuna lortzea, eta arrazoibide kritikoan eta gizartearen balioenganako konpromiso etikoan aurrera egitea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

Programa teorikoa

Sarrera:

- 1.- Zelulen fisiologiaren oinarriak. Zelulen eta barne-medioaren arteko trukeen oinarriak.
- 2.- Animalia sistema bezala. Energia-fluxuak. Unitate funtzionala eta homeostasiaren kontzeptua.

Erregulazio- eta integracio-mekanismoak

- 3.- Nerbio-sistemaren komunikazioa. Kitzikagarritasunaren oinarriak. Ekintza-potenziala. Nerbio-bulkadaren transmisio-abiadura.
- 4.- Transmisió sinaptikoa. Neurotransmisoreen askapena. Kanal ionikoak eta potenzial postsinaptikoa.
- 5.- Integratio sinaptikoa. Inhibizioa, batuketa eta errazketa.
- 6.- Oinarritzko integracio neuronala. Konbergentzia eta dibergentzia. Neurona-zirkuituak.
- 7.- Harrera sentoriala. Modu sentorialak eta hartzale motak. Potenzial hartzaleak. Kinadaren kodifikazioa. Egokitzapena.
- 8.- Trasdukzio sentorialerako mekanismoak. Kimioharrera. Mekanoharrera eta fonoharrera. Fotoharrera eta ikusmena.
- 9.- Efektoreak eta mugimendua. Organo efektore motak. Mugimendua. Muskulu eskeletikoa: estructura eta funtzioa. Proteina uzkurkorra eta uzkurketaren teoria. Akoplamendu elektro-mekanikoa.
- 10.- Muskuluen tonua. Zuntz azkarra eta geldoak. Tentsio-kurbak: uzkurketa isotonikoa eta isometrikoa. Muskulu lisoa. Bihotz-muskulua.
- 11.- Nerbio-sistemak: Koordinazioa eta integrazioa. Nerbio-sistemen antolamendu orokorra. Integratio zentralaren garapena.
- 12.- Nerbio-sistema zentralen integracio-funzioak: bide aferente eta eferenteak. Nerbio-sistema somatikoa eta

autonomoa.

13.- Nerbio-sistema autonomoaren antolaketa: azpisistema sinpatiko eta parasinpatikoa.

14.- Koordinazio endokrinoa. Hormonen sailkapen funtzionala. Hormonen ekintza-mekanismoak. Hartzale intrazelularak eta mintzeko hartzaleak. Bigarren mezulariak.

15.- Sistema neuroendokrinoen antolamendua. Ornodunen hipotalamo-hipofisi ardatza eta sistema baliokideak.

Barne-medioa eta bere zirkulazioa

16.- Zirkulazio-sistemaren banaketa eta integracio-funtzioak. Zirkulazio-sistema ireki eta itxiak. Zirkulazio-sistemaren antolamendua. Odol-hodi motak eta estruktura.

17.- Ponpa baskularrak. Maiztasuna eta bihotz-gastua. Bihotz motak. Kontrol miogeniko eta neurogenikoa.

18.- Hemodinamika: Presioa, fluxua eta erresistentzia. Presioaren erregulazioa. Zirkulazio kapilarra eta linfatikoa. Oreka kapilarra.

19.- Odol-fluxuaren eraenketa. Nerbioen bidezko kontrola eta zirkulazio kapillarraren tokiko kontrola

Integracio funtzionalaren ereduak: erregulazio homeostatikoaren zirkuitu nagusiak

20.- Elikagaien zikloan jokatzen duten estruktura eta organoak. Substratu metabolikoen eskuraketaren erregulazio homeostatikoa.

21.- Ur eta elektrolitoen balantzerako elementuak. Barne-medioaren konposizio ionikoa eta kontzentrazio osmotikoaren eraenketa.

22.- Arnas gasen trukerako estrukturak eta arnas organoak. Gasen trukea eta pH-aren eraenketa. Arnasketaren erregulazioa.

Programa praktikoa

- Programa informatikoen bidezko simulazioa (Neuroendokrinologia).

- Solutuaren tamainak difusioan duen eraginaren azterketa.

- Fluxu osmotikoaren gaineko tenperatura eta solutu kontzentrazioaren eraginaren azterketa.

- Zirkulazio eta arnaska parametroen erregulazioa.

- Tasa metabolikoaren neurketa.

METODOLOGIA

Ikasgai honetan lau irakaskuntza-modalitate erabiliko ditugu: Eskola ordu magistralak, mintegiak, gelako praktikak eta laborategiko praktikak.

Eskola ordu magistraletan Animalien Fisiologiaren oinarri teorikoak azalduko dira.

Gelako praktiketan galdera teorikoen eta problemen ebazpena eta eztabaидari ekingo diogu, eskola ordu magistraletan zein mintegietan landutako gaien inguruan.

Mintegietan programako zenbait atal jorratuko dira taldeka (4-5 ikasle), eta atal horiei buruzko memoria eta ahozko aurkezpena egin beharko dute ikasleek.

Laborategiko praktikak ezinbestekoak dira gorago jasotako zenbait gaitasun erdiesteko.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	35	4	6	15					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	53	10	12	15					

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 70

- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10

- Talde lanak (arazoien ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10

- Laborategian egindako praktikei buruzko galdetegia % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio jarraiturako, kontuan hartuko dira mintegiareng memoria eta aurkezpena (%10), laborategiko praktikei buruzko banakako galdetegia (%10), eta ezagutza teorikoen (%70) edo/eta ariketen ebazpena (%10) eskatzen duten galdera laburrak dituen azterketa egingo da (%80).

Hala nahi izanez gero, ikasleek uko egin diezaiokete ebaluazioa jarraituari, horretarako arautegiak ezarritako epearen barruan(ikasturte-hasieratiko 9 astetan), bere nahia idatziz jakinaraziz irakasleari. Hala ere, uko egitekotan komeniko litzateke laugarren astea baino lehen jakinaraztea, ukoaren ondorioz sorraraz daitekeen taldeen berrantolaketa-lana egin ahal izateko.

Azken proba idatzia, ezagutza teorikoen (%80) edo/eta ariketen ebazpena eskatzen duten (%10) galdera laburrak dituen azterketa izango da, eta laborategiko praktikei buruzko galderak ere (%10)izango ditu.

Azken proba horretara aurkeztu ezean, ulertuko da ikasleak uko egin diola deialdiari eta Ez Aurkeztu modura kalifikatuko da.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrok edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere.Bakarrik baimentzen da kalkulagailua eramatea. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzekotan, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdirako azterketa praktikoaren eta mintegien nota gordeko da, baldin eta gaindituta badaude; hortaz, ezagutza teoriken eta ariketen azterketa (%80) egin beharko da.

Ezohiko proba idatzia aurkeztu ezean, ulertuko da ikasleak uko egin diola deialdiari eta Ez Aurkeztu modura kalifikatuko da.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharrok edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere.Bakarrik baimentzen da kalkulagailua eramatea. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzekotan, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografía

HILL, R.W., WISE, G.A. & ANDERSON, M., 2006. Fisiología Animal. Harper & Row Publishers, N.Y.
MATHEWS, G.G.,1983. Cellular physiology of Nerve and Muscle. Blackwell Scientific Publications. Oxford.U.K.
Traducción:Mc Graw-Hill-Interamericana, 1989
RANDALL, D., BURGGREM, W. & FRENCH, K., 1997. ECKERT Fisiología Animal. Mc Graw-Hill-Interamericana.
SCHMIDT-NIELSEN, K. 1997. Animal physiology. Adaptation to environment,.5th Ed. Cambridge University Press. London.
PURVES, D., 2006. Neurociencias. Editorial Médica Panamericana, Madrid.

Gehiago sakontzeko bibliografía

Barber, A. M. y F. Ponz (1998). "Principios de Fisiología Animal" Ed. Síntesis, Madrid.
Guyton, A.C. (1996) "TRATADO DE FISIOLOGIA MEDICA" (9. edición). Ed. Interamericana-McGraw Hill, Madrid.
Prosser, C.L. (ed.) (1991). "COMPARATIVE ANIMAL PHYSIOLOGY". Wiley-Liss, Nueva York.
Rhoades R. A. y G. A. Tanner (1997). Fisiología Médica. Masson-Littel, Brown. Barcelona
Schmidt, R.F. y G. Thews (1993). "Fisiología humana". Interamericana MacGraw-Hill. Madrid (traducción 24^a ed alemana)
Tresguerres, J. A. F. (Ed.) (1992). "Fisiología Humana" Interamericana MacGraw-Hill. Madrid
Barja de Quiroga, G. (1993). Fisiología Animal y Evolución. Akal, Madrid
Blake, R. W. (Ed.) (1991). "Efficiency and economy in animal physiology" Cambridge University Press, Cambridge.
Costanzo, L. S. (2000) "Fisiología". (traducción de la 1^a ed). McGraw-Hill Interamericana. Mexico.
Kooijman, S. A. L. M. (1993). "Dynamic energy budgets in biological systems". Cambrid

Aldizkariak

ANNUAL REVIEW OF PHYSIOLOGY
COMPARATIVE BIOCHEMISTRY AND PHYSIOLOGY.
JOURNAL OF PHYSIOLOGY
JOURNAL OF PHYSIOLOGY AND BIOCHEMISTRY
REGULATORY INTEGRATIVE AND COMPARATIVE PHYSIOLOGY
PHYSIOLOGICAL AND BIOCHEMICAL ZOOLOGY
PHYSIOLOGICAL REVIEWS
ACTA-PHYSIOLOGICA-SCANDINAVICA.
PFLUGERS-ARCHIV-EUROPEAN-JOURNAL-OF-PHYSIOLOGY.
MARINE-AND-FRESHWATER-BEHAVIOUR-AND-PHYSIOLOGY.
JOURNAL-OF-COMPARATIVE-PHYSIOLOGY-
INTEGRATIVE-AND-COMPARATIVE-PHYSIOLOGY.
JOURNAL-OF-EXPERIMENTLA MARINE BIOLOGY AND ECOLOGY.
JOURNAL-OF-PHYSIOLOGY-LONDON.
JOURNAL-OF-APPLIED-PHYSIOLOGY.

JOURNAL OF EXPERIMENTAL ZOOLOGY
JOURNAL-OF-ANIMAL-PHYSIOLOGY-AND-ANIMAL-NUTRITION-ZEITSCHRIFT-FUR-TIERPHYSIOLOGIE-
TIERERNAHRUNG-UND-FUTTERMITTELKUNDE.

Interneteko helbide interesgarriak

www.whfreeman.com/animalphys5/
www.estrellamountain.edu/faculty/farabee/biobk/biobooktoc.html
<http://private.nmr.ru/manuals/biophys/OLTB/index.html>
www.accessexcellence.org/

Aldizkariak online:

advan.physiology.org/
jap.physiology.org/
www.journals.uchicago.edu/PBZ/
www.circ.ahajournals.org/
www.biochemj.org/bj/toc.htm
www.jbc.org/
jn.physiology.org/
www.jneurosci.org/
www.pnas.org/
www.sciam.com/
www.cell.com/
www.neuron.org/
www.nature.com/index.html
www.sciencemag.org/

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Plana GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Zikl. Zehaztugabea
Ikastaroa 3. maila

IRAKASGAIA

26836 - Animalien Sistemen Fisiologia

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Animalien Sistemen Fisiologia ikasgaiak animalien bizia bermatzen duten mekanismo fisiologikoak aztertzen ditu fisiologia konparatuaren ikuspuntutik, homeostasia eta ingurune ezberdinetara moldatzeko beharrezkoak diren erregulazio prozesuak ulertz.

Fisiologia jakintza-arlo anitzeko irakasgaia da, eta beste diziplina batzuen kontzeptuak erabiltzen du animali-sistemak azpizelularretiko mailatik supraorganismo-mailetara ulertzeko, hala nola matematika, fisika, kimika, bioestatistika, biokimika, biologia molekularra eta zelularra, eta ekologia.

Biologiako graduaren barruan, irakasgaia hirugarren ikasturteko bigarren lauhilabetean ematen da, eta lehenego lauhilabeteko Animalien Fisiologiaren Oinarriak ikasgaiarekin dago lotuta, baina ez dago aurrebaldintzarik ikasgai egiteko. Bestalde, irakasgaian zehar jorratutako kontzeptuetan sakontzen duen hautazko irakasgai bat eskaintzen da graduko 4. Mailan (Animalien Ingurumen Fisiologia).

Animali Fisiologiarekin erlazionatuta dauden eremu profesinalak Biologiako graduan agertzen direnak dira, bere izaera integratzialeagatik. Ikerketa eta garapen zientifiko nabamentzen dira, nekazaritza eta abeltzantza, industria kimiko eta farmazeutikoa, osasunaren arloa, ingurumenaren-kudeaketa eta heziketa.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Gaitasun espezifikoak:

1. Animalien funtzioen euskarri diren sistema desberdinen funtzionamenduaren oinarriak ezagutzea, eta funtzioren kontrolerako eta erregulaziorako mekanismoak ulertzeari.
2. Osmorregulazioan, iraizpenean, arnas gasen trukean eta energia eta elikagaien lorpenean esku hartzen duten sistemen ekintza-mekanismoak eta osagaiak aztertzea, beti ere animalia-taldeen arteko ikuspuntu konparatutik abiatuta.
3. Energia-balantzean eragiten duten prozesu metabolikoak ulertzeari.
4. Hazkundearen eta ugalketaren oinarri fisiologikoaren ikuspuntu integratzailera lantzea.
5. Hipotesiak gauzatzeko eta horiek balioztatzeko edo baztertzeko beharrezkoak den metodo zientifikoaren aplikazioa lantzea
6. Horretarako, baina, laborategiko lanetan trebatzea ere garatu beharko da

Zeharkako gaitasunak:

1. Erabakiak hartzeko eta informazioa modu egokian lantzea eta adierazteko beharrezkoak diren analisi-, sintesi-, antolatze- eta planifikazio-ahalmenak garatzea.
2. Ikasketa jarrai eta autonomorako beharrezkoak diren tresnak lortzeko beharrezkoak den jarrera positiboa mantentzea, iniziatiiba, kalitatearen aldeko motibazioa eta ingurumenarekiko sentsibilitatea sustatuz.
3. Talde-lanean eta pertsonen arteko harremanetan trebetasuna lortzea, eta arrazoibide kritikoan eta gizartearren balioenganako konpromiso etikoan aurrera egitea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**ORDU TEORIKOEN PROGRAMA**

Ur eta elektrolitoen ekonomia

- 1.- Erregulazio osmotikoa animalia urtarretan. Zelulen bolumenaren eraenketa isosmotikoa. Erregulazio anisosmotikoa. Gatz- eta ur-balantzea animalia lehortarretan.
- 2.- Nitrogenoaren metabolismoaren azken-produktuak. Nitrogenoaren iraizpen-motak eta ur-ekonomia.
- 3.- Osmorregulaziorako eta iraizpenerako organoak. Giltzurrunaren funtzia ebaluatzeko parametroak.
- 4.- Eskrezo-hodien ikuspegia konparatua: Protonefridioak, metanefridioak (eta urozeleak), Malpighi tubuluak eta nefronak. Ur-ekonomiarako estrukturak.
- 5.- Uraren eta elektrolitoen ekonomiaren erregulazio hormonala.

Arnas gasen trukea

- 6.- Arnas medioak eta oxigeno-gertutasuna. Arnas sistemen ezaugarri orokorrak. Arnas sistema eta sistema baskularren eboluzio bateratua.
- 7.- Kanpo-arnasketaren oinarrizko kontzeptuak. Uretan eta airean arnasteko organoak.
- 8.- Arnas gasen garraio baskularra. Pigmentuen disoziazio-kurbak. Afinitatea: pH-aren eta NTPen eragina. CO₂aren garraioa eta pH-aren eraenketa.
- 9.- Arnas zentruak. Arnasketaren eraenketa: kontrol kimikoa eta erreflexua.

Energia eta nutrienteen lorpena

- 10.- Nutrizioa delako kontzeptua. C, N eta nutriente espezifikoen beharrizanak. Elikagaien lorpena. Elikatze-moduak.
- 11.- Elikagaien digestioa. Digestio-sistemen ikuspegি orokorra. Digestioa: atal funtzionalak eta sekuentziazioa. Digestio estrazelularra eta intrazelularra. Digestio-entzimak.
- 12.- Karbohidrato eta aminoazidoen xurgapena. Gantzen xurgapena. Digestio-jardueren koordinazioa eta erreserba-zikloak.

Metabolismoa, bero-ekoizpena eta temperaturaren erregulazioa

- 13.- Tasa metabolikoa delako kontzeptua. Metabolismo basala eta aktibitate-mailak. Metabolismoa eta gorputzaren tamaina.
- 14.- Erreserben metaketa eta erabilpena. Erregulazio hormonala.
- 15.- Erlazio termikoak. Poikilotermoen metabolismoa tenperaturak duen eragina. Efektu termikoaren berehalako eta epe luzeko konpentsazioa.
- 16.- Ektotermia eta endotermia. Bero-ekoizpenerako mekanismoak. Homeotermoen tenperaturaraen erregulazioa. Termorregulaziorako kontrol-sistemak.
- 17.- Ingurune-hipoxia eta -anoxia. Oxigeno-gertutasunak aktibitate metabolikoan duen eragina. Anaerobioen hartzidura bidezidorak. Oxigeno-zorra eta defizita.

Energia-balantza: hazkunde eta ugalketa

- 18.- Energia-balantza delako kontzeptua. Hazkunde-efizientzia garbia eta gordina.
- 19.- Hazkunde somatikoa eta ugalketa. Ugal-ahalegina delako kontzeptua. Hazkundearen eta ugalketaren erregulazio hormonala.

LABORATEGIKO PRAKTIKEN PROGRAMA:

- 1.- Carassius auratus arrainaren balantze energetikoa
- 2.- Metabolismoaren neurketa sagu (Mus musculus) eta arrain batean (Carassius auratus)
- 3.- Fisiologiko laborategi simulazioak

METODOLOGIA

Ikasgai honetako gaitasunak modu egokian garatzeko ezinbestekoa da laboragiko praktiketan parte hartzea. Gelako praktikak eta mintegietako saioak osagariak izango dira, eta ariketak zein kasu/problemen ebazpena izango dute helburu. Mintegiei dagokienez, programako gai batekin lotuta dagoen kasu/problema bat/batzuk aurkeztuko dira, taldeetan horri buruzko hausnarketa suspertzeko asmoz. Gero, talde desberdinek erabilitako metodologia eta lortutako emaitzak memoria batean azalduko dira. Irakasleak argibideak eta laguntza eskainiko du prozesu honetan.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	35	4	6	15					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	53	10	12	15					

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerria

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

